

Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien akordioa. IKASTOLEN BALORAZIOA

EAEko Hezkuntza-sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak jasotzen dituen dokumentua onartu zen martxoaren 28an, Eusko Legebiltzarrean. Alderdi politikoek eta hezkuntza eragileek lehen zirriborroari egin zizkieten ekarpenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Hezkuntza Hitzarmena lau alderdi politikok onartu zuten, parlamentuaren % 90 osatzen dutenek. Ikastolen Elkartetik ere egin eta aurkeztu genituen ekarpenak, Eusko Legebiltzarrean.

Lehenik eta behin txalotu egin nahi dugu alderdi politikoek egin duten esfortzua eta izan duten gaitasuna, ikuspegi eta abiapuntu ezberdinetatik abiatuta akordioa lortzeko. Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean gure ekarpenak egin genituenean, segidakoa esan genuen: *“Badakigu zaila dela, kanpoko faktore asko daude (ideologikoak, jaiotze tasa, bakoitzaren egoera,) baina **une historikoan gaude: erakunde hauek sortu zirenetik lehenengo aldiz, gure gizartearen eraikuntzan oinarritzkoa den Hezkuntza Sistema antolatu eta adosteko momentuan gaude. Eta hori ez dugu gauzatuko bakoitza bere lubakian mantentzen bagara; atera egin behar gara lubakietatik, hitz egin eta adostu egin behar dugu, hurrengo 20-30 urteak baldintzatzen ari baikara. Eta ez gara adostasunera iritsiko nork bere zilborrari begiratu; ezberdinen arteko akordioak gauzatu behar ditugu***”. Lubaki horietatik atera direla pentsatzen dugu, eta ikastolok ere, dagokigun erantzukizunari eutsiz, gauza berdina egiten dugu eta positiboki baloratu behar dugu egin den hitzarmena.

Oraindik bidea falta da; zatirik garrantzitsuena dator, legea idaztea, eta zehatzago definitu beharko dira Hitzarmenean jasotzen dena. Horri begira, ondorengo aste eta hilabeteotan eztabaida prozesu zabala egingo dugu ikastolen artean, legean azalduko diren puntuen inguruan nola kokatu garen ikusteko. Prozesu horretan, gora-beherak egongo dira, baina orain arte erakutsitako jarrerari eusten bazaio, ziur gaude une eta aukera historikoari aurre egiteko aukera egongo dela.

Ikastolen helburua Euskal Herri osorako hezkuntza sistema propio bat eraikitzea da, eta bide horretan urratsak egiten jarraitzeko egokia da Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren ideia. Bidea egiten jarraitu behar dugu, muga administratiboak gainditu eta sistema propiorantz urratsak egiten jarraitu behar dugu eta horretarako dauzkagun aukerak baliatu behar ditugu.

Hau guztia aipatu ondoren, proposamena bere osotasunean baloratuko dugu segidan.

- Euskararen alorrean, zehaztasun handiagoa eskatu genuen hitzarmenaren lehen zirriborroa baloratu genuenean; orain, hitzarmena aztertzekoan egiaztatzen dugu norabide onean doazen neurriak jaso direla: besteak beste, Ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza gaitasun maila zehazten da; Lehen Hezkuntza amaitzerakoan ikasleek B1 maila izango dutela gutxieneko helmuga bi hizkuntza ofizialetan, eta B2 maila DBH amaitzerakoan. Guretzat neurri garrantzitsua da, eta ikastolen aldarri historikoa ere bada. Euskara ardatz izango duen eredu eleaniztun inklusibo orokortu baten aldeko apustua egiten da. Azken hau, eredu inklusibo orokortua, jaso izana urrats berria da. Euskal hezkuntza Zerbitzu publikoan sartzeko baldintzen artean, ikastetxeek euskara lehenetsi beharko dute, hezkuntza jardueran zein harreman profesionalean, nahiz ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan.

Hala ere, kontraesanak ikusten ditugu hitzarmenean, eta aurretik aipatutakoa egia bada ere, hitzarmenean behin baino gehiagotan hiru hizkuntzen tratamendu integratua emango dela edo hiru hizkuntzek ikaskuntzak bideratuko dituztela jasota egotea kezka ikusten dugu. Ondorioz, euskara ardatz duen sistema horretan, ardatz izatearen ezaugarriak zehaztu beharko dira, baita etorkizuneko eredu inklusiboaren oinarria ere; alegia, euskarak izan behar du ikas-irakaskuntza prozesuetako hizkuntza eta horrek legean bere isla behar du eta hizkuntza gaitasunak lortzeko zehaztapenak definitu behar dira.

Lan horretan, eta gai honetan dagoen adostasuna ikusita, garrantzitsua izango litzateke hezkuntza eragileok elkarlanean eta Kontseiluarekin koordinatuta lan egiten jarraitzea eta legean horrela jasoko den proposamen zehatz bat egitea, legean halaxe jaso dadin.

- Aurrerapena iruditzen zaigu Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren sorrera eta bertan sartzeko, ikastetxeek, administrazio-titularitatekoak izan ala ez, bete behar dituzten konpromisoak eta baldintzak hitzarmenean jasota egotea. Gainera, baldintza horiek, aipatzeaz gain, definitu ere egin dira, eta, beraz, etorkizuneko legeari begira, ezinbesteko oinarri dira. Hezkuntza itunean jaso diren baldintzak sakonak dira eta ados gaude. Euskal Hezkuntza zerbitzu publikoan egongo diren ikastetxe guztiek eskubide eta betebeharrak izateko eta behar duten finantzazioaren %100 bermatuta doakotasun erreala ziurtatzeko ideiekin ere bat egiten dugu. Baina jasotzen den ideia epe motzean gauzagarri izan dadin, finantzazio modu berriaren ezarpen egutegi bat beharrezkoa dela deritzogu. Neurriak definitu eta kronograma ondo zehaztea ezinbestekoa izango da prozesua berme guztiekin eman dadin.
- Ados gaude segregazioa ekiditeko egiten diren proposamenekin ere; herri bezala, ezinbestekoa egiten zaigu arazo honi aurre egitea. Esparru honetan ibilbide luzea duten eragileek adierazi duten bezala, guk ere uste dugu Hitzarmenean jasotako segregazioaren aurkako neurriak aitzindariak eta anbizio handikoak direla, eta garrantzitsua iruditzen zaigu Hitzarmenean aurreikusita egotea hezkuntza komunitatearekin elkarrizketa aktiboko prozesu bat bultzatzea, 2023an eskola-segregazioaren aurkako itun bat lortzeko helburuarekin. Hori bai, ezinbestekoa da eskolatze batzordeek egiten duten matrikula biziaren (ikasturtean zehar iristen diren ikasleak) kudeaketa aldatzea. Beharrezkoa da

hezkuntza eragileek Batzorde horietan parte hartzea eta haien funtzionamenduan irizpideak aldatzea.

- Badaude ere kezkatzen gaituzten gaiak: batetik, 0-3 etaparako proposamena, eta, bestetik, herriko informazio bulegoak. Lehenengo kasuan, haur hezkuntzari ziklo egitura aitortzen zaio; beraz, ez dugu ulertzen etapa hau zergatik banatu behar dugun, dokumentu osoan aipatzen den erakunde ezberdinen artean osatutako "Euskal Hezkuntza Sistema" kontzeptua puskatuz. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren ideia 3 urtetik gorako eskaintzan zentratzeari ez diogu logikarik ikusten, etaparen koherentzia, jarraikortasun eta osotasun ikuspegitik. Beraz, ideia berdina mantendu beharko litzateke izaera publikoa duten zentro guztiei zeregin berdina emanez. Bigarrenengo kasuan, berriz, herriko informazio bulegoari buruz akordioan jasotzen denarekin ados bagaude ere, bulego horien osaera eta betebeharra oso ondo zehaztu beharko litzatekeela uste dugu. Bertako kideek neutralitatea eta informazio objektiboa eskaini behar dutela ziurtatu behar da, eta, horretarako, bulegoaren osaeran herriko eragile guztiak egon behar dutela pentsatzen dugu.
- Ikastolen ikuspegitik hutsune handi bat dago hitzarmenean: Euskal Herriaren aipamena falta zaio. Euskal Herria euskararen herria bada ere, bada hori baino askoz gehiago ere; izaera, kultura, hizkuntza, balio eta nortasunarekin lotzen da. Horrek guztiak, nahiz eta agerikoa izan EAErako lantzen den lege baten inguruan ari garela, legean bere oihartzuna izan behar duela argi daukagu, eta lurraldetasunaren ikuspegitik bezala, ikuspegi soziolinguistiko, kultural eta ekonomikotik ere landu behar dela deritzogu. Eta horretarako bideak badaudela uste dugu: alde batetik, Euskal Herrian dauden ikastetxe guztien arteko harremanak eta proiektuak sustatuz edo ikastetxeen arteko sareak hedatzea bultzatuz; eta, bestetik, Europa mailan dagoen legedia erabiliz, elkarlana sustatzeko erakundeak sortuz eta baliatuz, egungo errealitatetik abiatuta hezkuntza sistema propio bat Euskal Herri osoan eraikitzeko tresna izan daitekeena eta denontzat estrategikoak diren proiektuak bideratzeko balio dezakeena.

Laburbilduz, egiten den proposamena ikastolen behar eta nahi guztiak ez asetu arren, hasieran esan dugun bezala epe luzeko ikuspuntua mantenduz, bizi dugun momenturako egokia dela deritzogu. Hurrengo hilabeteetan garatu beharko da orain arte esandakoa, eta denbora izango dugu denon artean behar diren zehaztapen eta ekarpenak egiteko. Bitartean, jarrai diezaiogun hasitako bideari, adostu dezagun gure hezkuntza sistemaren norabidea, bakoitza bere lubakitik aterata eta elkarlanari lehentasun osoa emanez.

Acuerdo para la transformación del Sistema Educativo Vasco. VALORACIÓN DE LAS IKASTOLAS

El 28 de marzo se aprobó en el Parlamento Vasco el “Acuerdo para la transformación del Sistema Educativo Vasco” o Pacto Educativo. Tras el análisis y debate de las aportaciones de los partidos políticos y agentes educativos al primer borrador, el Pacto Educativo fue aprobado por las cuatro formaciones políticas mayoritarias, que representan el 90% del arco parlamentario. Desde Ikastolen Elkartea hicimos y presentamos también nuestras aportaciones, en el Parlamento Vasco.

Queremos aplaudir el esfuerzo que han realizado los partidos políticos y la capacidad que han tenido para llegar a un acuerdo desde diferentes perspectivas y puntos de partida. Cuando hicimos nuestras aportaciones ante la Comisión de Educación del Parlamento, dijimos lo siguiente: *“Sabemos que es difícil, hay muchos factores externos (ideológicos, natalidad, situación de cada uno) pero estamos en un momento histórico: por primera vez desde la creación de estas instituciones, estamos en el momento de organizar y acordar un Sistema Educativo, básico en la construcción de nuestra sociedad. Y eso no lo vamos a llevar a cabo si nos mantenemos cada uno en su trinchera; tenemos que salir de las trincheras, hablar y acordar, porque estamos condicionando los próximos 20-30 años. Y no llegaremos al consenso mirándonos el ombligo de cada uno; tenemos que llevar a cabo acuerdos entre diferentes”*. Pensamos que, mediante este acuerdo, los partidos políticos han salido de esas trincheras, y las ikastolas, manteniendo la responsabilidad que nos corresponde, hacemos lo mismo y debemos valorar positivamente el acuerdo que se ha suscrito.

Aún falta camino por recorrer; ahora viene la parte más importante, la redacción de la ley de enseñanza, y habrá que definir con más detalle lo que se recoge en el Pacto Educativo. De cara a ello, durante las próximas semanas y meses vamos a realizar un amplio proceso de debate entre las ikastolas para ver cómo nos hemos posicionado en torno a los puntos que se expondrán en la ley. En ese proceso habrá altibajos, pero, si se mantiene la actitud mostrada hasta ahora, estamos convencidos de que podremos afrontar este momento histórico, esta oportunidad histórica.

El objetivo de las ikastolas es construir un sistema educativo propio para toda Euskal Herria, y la idea del Servicio Público Vasco de Educación, recogida en el Acuerdo, es adecuada para seguir dando pasos en ese camino. Tenemos que seguir caminando, superar los límites administrativos y seguir avanzando hacia un sistema propio y aprovechar las oportunidades que tenemos para ello.

A continuación, procedemos a valorar la propuesta en su conjunto.

- **En el ámbito del euskera**, solicitamos una mayor concreción a la hora de valorar el primer borrador del convenio; ahora, al analizar el acuerdo suscrito,

comprobamos que se han recogido medidas que van en la buena dirección: entre otras, se determina el nivel de competencia lingüística que deben adquirir los alumnos; que al finalizar la Educación Primaria los alumnos tendrán como mínimo el nivel B1 en las dos lenguas oficiales, y el nivel B2 al finalizar la ESO. Para nosotros es una medida importante y también es una reivindicación histórica de las ikastolas. Se apuesta por un modelo multilingüe inclusivo generalizado que tenga como eje el euskera. Que el texto haya recogido esto último, un modelo inclusivo generalizado, es un nuevo paso. Entre los requisitos para acceder al Servicio Público de Educación Vasco, los centros deberán priorizar el euskera, tanto en la actividad educativa como en las relaciones profesionales, así como en las relaciones formales y no formales entre el alumnado y el profesorado.

Sin embargo, observamos contradicciones en este acuerdo y, si bien es cierto lo anteriormente citado, vemos con preocupación que en el texto se contemple en más de una ocasión que se dará un tratamiento integrado de las tres lenguas o que éstas orientarán el aprendizaje. En consecuencia, en este sistema, centrado en el euskera, habrá que definir las características del eje y las bases del modelo inclusivo de futuro; es decir, el euskera debe ser la lengua de los procesos de enseñanza-aprendizaje, lo que debe tener su reflejo en la ley y se deben definir las especificaciones para el logro de las competencias lingüísticas.

A tal efecto, y a la vista del consenso existente en esta materia, sería importante que los agentes educativos continuáramos trabajando conjuntamente y en coordinación con EuskaGintzaren Kontseilua y que hiciéramos una propuesta concreta para que se recoja en la ley.

- Nos parece un avance **la creación del Servicio Público Vasco de Educación** y los compromisos y condiciones que deben cumplir los centros -sean de titularidad administrativa o no- para acceder al mismo estén recogidos en el acuerdo. Estas condiciones, además de ser enunciadas, también han sido definidas, por lo que constituyen una base imprescindible de cara a la futura ley. Las condiciones que se han recogido en el Pacto Educativo son de calado y estamos de acuerdo con ellas. Compartimos también las ideas de que todos los centros que vayan a estar en el servicio público educativo vasco tengan los mismos derechos y obligaciones y, garantizado el 100% de la financiación que necesitan, aseguren la gratuidad real. Pero para que la idea que se recoge sea factible a corto plazo, consideramos necesario un calendario de implantación de la nueva forma de financiación. La definición de las medidas y la correcta definición del cronograma serán imprescindibles para que el proceso se dé con todas las garantías.
- También estamos de acuerdo con las propuestas que se hacen para **evitar la segregación**; como país, se nos hace imprescindible hacer frente a este problema. Tal y como han señalado agentes con larga trayectoria en este ámbito, nosotros también consideramos que las medidas contra la segregación recogidas en el Pacto Educativo son pioneras y ambiciosas, y consideramos importante que en el acuerdo esté previsto impulsar un proceso de diálogo activo con la comunidad educativa con el objetivo de alcanzar un pacto contra la

segregación escolar en 2023. Eso sí, es imprescindible cambiar la gestión de la matrícula viva (alumnos que llegan a lo largo del curso) que realizan las comisiones de escolarización. Es necesaria la participación de los agentes educativos en estas Comisiones y el cambio de criterios en su funcionamiento.

- El Pacto educativo recoge también **temas que nos preocupan**: por un lado, la propuesta para la etapa 0-3, y por otro, la creación de las oficinas de información local. En el primer caso, se reconoce a la educación infantil una estructura de ciclo; por lo que no entendemos por qué tenemos que dividir esta etapa, rompiendo el concepto de Sistema Educativo Vasco formado entre las diferentes instituciones que se menciona en todo el documento. Centrar la idea de Servicio Público Vasco de Educación en la oferta de más de 3 años no es lógico desde el punto de vista de la coherencia, continuidad e integridad de la etapa de Infantil. Por lo tanto, habría que mantener la misma idea dando el mismo papel a todos los centros de carácter público. En el segundo caso, aunque estamos de acuerdo con lo que se recoge en el acuerdo sobre las oficinas de información locales o municipales, creemos que habría que concretar muy bien su composición y función. Hay que asegurarse de que sus miembros actúen con neutralidad y que ofrezcan información objetiva, y para ello pensamos que en la composición de estas oficinas deben estar todos los agentes de cada municipio.
- Desde el punto de vista de las ikastolas **hay una gran omisión en el Pacto educativo**: le falta la mención de Euskal Herria. Aunque Euskal Herria también es el pueblo del euskera, es mucho más que eso; se relaciona con el carácter, la cultura, la lengua, el valor y la identidad. Todo ello, a pesar de que es evidente que se trata de una ley que se elabora para la CAPV, tiene que tener su eco en la ley y, al igual que desde el punto de vista de la territorialidad, entendemos que debe abordarse también desde el punto de vista sociolingüístico, cultural y económico. Y creemos que hay vías para ello: por un lado, promoviendo las relaciones y proyectos entre todos los centros existentes en Euskal Herria o promoviendo el despliegue de redes entre centros; y, por otro, utilizando la legislación existente a nivel europeo, creando y haciendo uso de instituciones de fomento de la colaboración que, partiendo de la realidad actual, puedan servir como herramienta para construir un sistema educativo propio en toda Euskal Herria y que puedan servir para encauzar proyectos estratégicos para todos.

En resumen, aunque la propuesta que se hace en el Pacto Educativo no satisfaga todas las necesidades y deseos de las ikastolas, como decíamos al principio, manteniendo un punto de vista a largo plazo, creemos que es adecuada para el momento que vivimos. En los próximos meses habrá que desarrollar lo dicho hasta ahora y tendremos tiempo para hacer las precisiones y aportaciones necesarias entre todos. Mientras tanto, sigamos el camino emprendido, acordemos el rumbo de nuestro sistema educativo, abandonemos cada cual nuestra trinchera y demos prioridad absoluta a la colaboración.